


Sozioprosesionalek irailaren 15erako eman beharko dute Departamenduaz duten iritzia

Garapen Kontseiluaren osotasunak ez du emanen, «gai politikoa» dela argudiatuz

Hur Gorostiaga / Baiona

Garapen Kontseiluko zuzendaritzak Euskal Departamenduari buruz iritzirik ez ematea erabaki zuen, eta horri buruzko zehaztasunak eman zituen atzo Jean Claude Iriart lehendakariak. Egiturak osotasunean iritzirik emanen ez badu ere, egituraren bi herenak osatzen dituzten sozioprosesionalei iritzia eman dezaten galdeginen zaie irailaren 15erako.

«ESKAERA horren azterketa ez da Iparraldearen garapen ekonomikorako instituzio berezi baten alde on eta txarrak agertaraziko dituen ikerketa tekniko eta objektibo batera mugatzen ahal. Instituzio bat bestea baino hobe dela errateko, izaera politikoa duten aprezioaziotan sartu beharko litzateke, eta Garapen Kontseiluko zati batek ezingo luke eztabaida horretan parte hartu, administrazioetako ordezkariak berezi ki. Euskal Herria 2010 eta Lurralde Eskemaren segidan, Garapen Kontseiluak bere kohesioa zaindu behar du, bere konposaketa anitza errespetatu eta iraupena segurtatzeko, Ipar Euskal Herriaren instituzionalizatzeko maila edozein izanik ere. Hala ere, Euskal Departamenduari buruzko eztabaida publikoak laguntzeko, Kontseiluak gaiari buruz egituraren baitako sozioprosesionalek galdekatuko ditu». Horre-



Garapen Kontseiluko Battitta Boloki eta Jean Claude Iriart, atzo eskainitako prentsaurrekoan.

la azaldu zuen atzo Jean Claude Iriart Garapen Kontseiluko lehendakariak astearte arratsean zuzendaritzak hartutako erabakia.

Gisa horretan, Garapen Kontseiluak bi iritzi kontrajarriaren artean bere oreka bilatu du bertze behin ere. Euskal Departamenduari buruz egiturak osotasunean iritzirik emanen ez badu ere, Garapen Kontseilua osatzen duten euskal gizarteko 90 ordezkarietarik 67 sozioprosesionalek gaiari buruzko beren iritzia ematen ahalko dute; hots, egituraren bi herenek. Baina

horretarako biziki epe motza finkatu dute, heldu den irailaren 15erako erantzunak eman beharko baitira. Tarte horretan ordezkari bakoitzak Euskal Departamenduaren alde edo kontra dagoen bozkatu beharko du, edo abstenitu. Elkarte soilez gain, zenbait egitura publikok ere galdareri erantzun ala ez erabaki beharko du, Pirinio Atlantikoetako Laborantza Ganberak eta Merkataritza Ganberak, besteak beste. Boza sekretua izanen da.

Jean Claude Iriart lehendakariaren arabera, ez zite-

keen bestela egin. «Garapen Kontseiluaren eginbeharra proposamenak egitea da. Horretarako ikuspuntu guztiak konduan hartzen ditu. Garapen Kontseiluaren zereginaz da aldaketa instituzionalak laguntzea edo oztopatzea. Bere eginbehar politikoko bakarra Lurralde Eskeman gauzatzen da. Udalen Biltzarrak egindako galdera politikoa da, eta horri buruz iritzi bat ematea gure printzipioen kontra joan litzateke», ohartarazi zuen presidentek, zuzendaritzaren erabakia zehazterakoan.

Eki-Baionako hauteskondeak errepikatu beharko dira

■ Beaumonten
Espainiaratzea
salatzeko ekintzen
eragina salatu du
Estatu Kontseiluak

H. Gorostiaga / Baiona

IAZKO martxoan Ipar Euskal Herrian egin ziren kantonamendu hauteskundeetan Eki-Baionan Jean Michel Barnetxe hautatu zuen bozketa baliorik gabe utzi du Estatu Kontseiluak. Egun haietan Frantziak Josu Beaumont euskal preso Espainiaratzeak zuela eta, Philippe Casenave hautagai sozialistaren afixetan ezezagun batzuek egin zituzten idazketek hauteskundearen emaitza eragina izan zuela adierazi du Estatu Kontseiluak. Izan ere, Barnetxe eta Casenaveren artean 17 bozko diferentzia besterik ez zegoen; eta kanpaina bukaeran egindako pintadak egin ez balira diferentzia horiek ez liratekeela egongo dio.

Ondorioz, hauteskundeak hiru hilabeteko epean errepikatu beharko dira. Barnetxe eta Casenavek aurkezteko xedea agertu dute. Barnetxek, UDFren sustenguaz gain, RPRrena erdietsi zuen iaz, baina aurrean nola izanen den oraindik ez da argitu. Izan ere, Christian Millet Barbe (RPR) edo Jean Grenet (UDF) Baionako auzapeza hautagai izan litezkeela aipu da.

EA eta EAJren arteko harremanak zaindu behar direla dio Garaikoetxeak

■ EAko buruak esan zuenez, «inor ez dago EHrekin koalizio bat egitearen alde»

Europa Press / Bilbo

EA-K EAJrekin dituen harremanak zaintzearen alde azaldu zen atzo Carlos Garaikoetxeak, «herri honek ardatz estrategiko hori merezi duela». Euskadi Irratiak egin elkarrizketa batean Garaikoetxeak adierazi zuenez, EAn irekita dagoen eztabaidaren mamia «harremanen formula da, eta ez nola eutsi behar zaien harreman horiei».

Era berean, EAJ-EA koalizioa

zabaltzeko zaila nahi dute. «Inork ez du erabaki inongo koalizio motarik egitea», argitu zuen.

Inazio Oliveriren dimisioaz ere jardun zuen Garaikoetxeak. Haren ustez, idazkari orokorraren kargua ez du utzi konfiantza faltagatik. Oliverik Jaurlaritzako kide izaten jarraitzen duela gogoratu zuen EAko presidentek. Postu horrek alderdiaren konfiantza handiagoa eskatzen du, Garaikoetxearen iri-

tziz. Aldi berean, Gobernuaren postu batek duen garrantzia azpimarratu zuen EAko buruak, «lau urterako baita. Exekutibakoa, aldiz, lau hilabetetarako».

EHko batzarkide eta zinegotziek Gasteizen sinatutako txostenari buruz, Garaikoetxeak «aurrerapausotzat» jo zuen, eta helburu politikoa lortzeko bide politikoa eta demokratikoa alde EHk duela hilabete batzuk sinatu zuen txostenaren eta legealdi-



PABLO S. QUIZA

Carlos Garaikoetxea.

ko akordioan kokatu zuen. «Gu kritikatu gintuztenek kritikak utz ditzatela espero dut», esan zuen, azkenik.